


NATURBERRI

Ingurumen hezkuntza eta kontroleko ikasleen aldizkaria
Revista del alumnado de educación y control ambiental

Easo Politeknikoa
8. zkia/nº 8 2025/2026



easo
politeknikoa





Egileak: Ekaitz Loyarte Otaegi, Flor de María Peña Ariza, Hylenia Gómez Vázquez, Intza Arruabarrena Ugarte, Iñaki Romano Suberbiola, Irati Sanchez Ugarte, Johana Abigail Mejía Quintana, Joseph Alejandro García Rodríguez, Leire Videira Gil, Maren Arteaga Hoyos, Marcos Villagarcía Cobo, María Morán Sánchez, Pablo Leza Iturbide, Ugaitz Belaunzaran Otaegui eta Vivian Yuliana Orrego Valencia.

Maketatzaileak: Hylenia Gómez Vázquez, Iñaki Romano Suberbiola, Joseph Alejandro García Rodríguez eta Leire Videira Gil.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Sarrera | 4 |
| Would you like to know us? | 5 |
| Zikloaren lorpenak | 7 |
| Nuestros refugios climáticos | 8 |
| Lan-esplotazioa | 11 |
| Ecofeminismo | 12 |
| Lamine Thior | 14 |
| Donostiako kutsadura akustikoa | 16 |
| La tecnología no nos exime de responsabilidades | 17 |
| Más allá de tu pantalla | 18 |
| Desizoztea | 20 |
| Guggenheim berri bat Urdaibaien | 22 |
| Zumaiako Flyscha | 24 |
| Natura 2000 Sarea Euskal Herrian | 27 |
| <i>El Tesoro de Urgull</i> | 29 |
| Euskal Herriko espezie mehatxatuak | 30 |
| Marrazoak Kantauri itsasoan | 32 |
| Europar bisoia | 33 |
| Kantauriar basaoilarra | 34 |
| Hegaztien atzetik: eraztunketa Aranzadin | 36 |
| Kaio erasotzaileak? | 38 |
| La dañina moda del fast fashion | 39 |
| Klimaren alde | 40 |
| ¿A dónde va el agua? | 42 |
| Gotita doesnt want to be green | 43 |
| Klimametrage 2024 | 46 |
| UN LIBRO VERDE | 47 |
| “El árbol del futuro” | 48 |
| Pasatiempos | 49 |
| GIH-ODS-SDG | 51 |
| Collage | 52 |



Sarrera

I rakurle agurgarria., aldizkari honek EASO Politeknikoko Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko ikasleen lana aurkezten du. Gure aldizkariak azken bi urteetan egindako lanik esanguratsuenak erakusten ditu. Egindako jarduerekin batera, argitaratutako artikuluek gaur egungo ekologiari eta hezkuntzari buruzko gaiak eta istorio entretenigarriak jorratzen dituzte, denbora-pasaren atala ahaztu gabe.



Introducción

E stimado lector, esta revista expone el trabajo del alumnado de Educación y Control Ambiental de EASO Politécnico. Muestra los trabajos más relevantes realizados los últimos dos años. Junto a las actividades realizadas, los artículos expuestos tratan temas de la actualidad sobre ecología, educación e historias de lo más entretenidas, sin olvidar la sección de pasatiempos.



Foreword

D ear reader, this magazine presents the work of Environmental Education and Control students of Easo Politechnic. Our magazine will aim to showcase the most relevant work carried out over the last two years. Alongside the activities undertaken, the published articles will address current affairs, ecology, education and highly entertaining stories, without forgetting the word games section.



Would you like to know us?

For almost 2 years, our course has been set on studying the basic things about the environment, the species, natural habitats and climate change.

But there are other things that we also have learned. How to raise awareness in other individuals. For example, how to do proper recycling or how to differentiate what goes to the organic trash and what does not.

We can say that even our worst qualities have been improved. That is because we participated in many activities that trained our brains' capacity to its limits.

Moreover, we have been in different natural places, where we have learnt how to evaluate the environmental state of the elements that complete each place, such as, water, biodiversity, air, noise...

We also know for a fact, that we have learnt what true team spirit means. It means to step up for someone if their feelings are not being the best ones yet. It means to listen to other voices rather than your own. It means to try to communicate in a way that includes and validates everyone's opinion. Because every change, starts inside us.

Texto: Hylenia Gómez Vázquez
Leire Videira Gil
María Morán Sánchez



Zikloaren lorpenak

KLIMAMETRAJEAREN IRABAZLEAK



2024ko azaroaren 27a

Iñaki Romano Suberbiola, Johana Abigail Mejía Joseph Alejandro García

NATURA ERE BAGARA IRABAZLEA



2025eko urriaren 12a

Joseph Alejandro García
2.mailako ikaslea

EKONOMIA ZIRKULARRA
MODELATZEAREN IRABAZLEAK



2025eko azaroaren 28a

Igor Eskudero, Irene Mancebo,
Lier Flores Nagore Rodríguez
1.mailako ikasleak.


Nuestros refugios climáticos

¿Qué son?

Los refugios climáticos son espacios para hacer frente a las cada vez más frecuentes olas de calor. Dichos espacios pueden ser: iglesias, parques, jardines, museos... Su fin es ayudar en el bienestar y en la salud de la gente.



Foto: Página web de Donostia-San Sebastián



Situación actual

Dado los tiempos que corren, estos lugares están en auge y cada vez se les da más importancia. Aun así, todavía hay comunidades autónomas que no cuentan con una red de refugios, como por ejemplo: Extremadura (temperatura media de 27°C y con máximas de hasta 46°C), o Castilla la Mancha (temperatura media de 25°C y con máximas de 44°C). Sevilla, por ejemplo, cuenta con 1 refugio climático por cada 137.400 habitantes. En cambio, lugares como Barcelona (401 refugios) o Bilbao (131 refugios) cuentan con una red más amplia. En el caso de Euskadi actualmente existen 245 refugios identificados (93 de ellos en Donostia). En el verano de 2025 fallecieron un total de 3.832 personas solo en España debido a las altas temperaturas.

La creación de refugios es muy simple y económica, cualquier comunidad se la puede permitir. Empresas como Green Urban Data se ocupan de recopilar datos, plantear alternativas y modelos de refugios por una inversión asequible para una ciudad o pueblo.



Cristina Enea - San Sebastián turismo




Foto: Eva Bronzini

Como hemos comentado anteriormente, los refugios climáticos pueden ser zonas al aire libre. Se les denomina refugios ya que son lugares que sirven de resguardo durante las olas de calor que se suelen dar en verano; para ello deberán tener la capacidad de reducir la temperatura del lugar, ya sea, mediante la humedad y el frescor, o por las sombras que se generan naturalmente; por otro lado, también pueden ser espacios artificiales cerrados, conservados frescos mediante aires acondicionados y plantas.

En conclusión...

Los refugios climáticos deberían de tener más presencia en las ciudades ya que son un espacio imprescindible para la salud de la ciudadanía; así podremos hacer frente a las olas de calor.

Texto: Iñaki Romano Suberbiola y Marcos Villagarcía Cobo



Los refugios climáticos,
salvan vidas.

Lan-Esplotazioa

Haurrak helduak izaten

Urtero, beste herrialde askoren haurrak gehiegizko lan-esplotazioaren biktima izan dira hainbat sektoretan. Egoera honetan bizi direnak, haurtzaroa, adingabe gisa dituzten eskubideak eta bizi-kalitate hobea izateko aukera galtzen dute.

Haur baten bizitza horrelakoa dela sinistea zaia izan arren, uste duguna baino maizago errepikatzen da.

Oraindik kontatu ez diren eta entzunak izateko zain dauden istorio asko daude. Nasreen Sheikhek bederatzi urte zituen Rajuratik ihes egin zuenean, India eta Nepal banatzen duen mugako herrian jaiota. 10 urte besterik ez zituela, Katmanduko (Nepalgo hiriburua) lantegi klandestino bateko gela berean lo egin, bazkaldu eta lan egiten zuen. Bere lanaldia 12-15 ordukoa zen egunero, bere lan eskubideak ez ziren existitzen.



Argazkia: Canva

Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko ikasleak garenez, gure arloan ingurumen osasuna bermatzeko gizakiaren ongizatea ere ziurtatu behar dugu. Duela hilabete batzuk Europako Hondakin Elektroniko eta Elektrikoen Prebentzio Astea ospatu genuen. Asteaz gero, hainbat ekintza prestatu genituen Afrikako eta Asiako hainbat herrialdeetan mineralak erazten ibiltzen diren haurren lanaren esplotazioaren inguruan hitz egiten zirenak.



Argazkia: Canva

Horri esker, ondorio bat atera genuen: haurrak ez lukete beren haurtzaroa eta hezkuntza sakrifikatu behar gaizki bizitako lan batzuegatik.

Ecofeminismo

Hay que educar la mirada y re aprender. “Vivimos sin mirar lo que nos mantiene”.

Foto: Vivian Yuliana Orrego Valencia

El ecofeminismo nace de la confluencia entre el feminismo y el ecologismo, en donde emerge una crítica radical a la explotación, tanto de la tierra como de las mujeres.

Las ecofeministas defienden que las luchas no pueden ir por separado, porque las opresiones están entrelazadas; y, lo que mantiene la vida no es la cosmovisión antropocéntrica y patriarcal sino lo marginado por ellos: la naturaleza y las mujeres.

**El cuerpo de la mujer y la tierra son espacios vivos
históricamente violentados por una misma lógica de dominio.**



Calcuta Ondoan

En nosotras no existen jerarquías, ni persecución económica. Lo que hay es la certeza de que, sin tierra no hay vida y sin cuidados no hay comunidad.

En los ecologistas hay miedo a contar la gravedad de la situación y también una desconexión enorme de la mayoría de las personas con la naturaleza. Lo único que podría funcionar es lograr que la población comprenda cómo funcionan los ecosistemas y esa doble toma de conciencia sería, la base de una transición ecológica justa.

Hay que enfrentar el reto de construir un relato creíble, colectivo e inspirador sobre cómo vivir mejor, desde la certeza de que otro camino es posible si el corazón y la mente se unen.

Texto: Flor de María Peña Ariza



Lamine Thior

El racismo

El racismo es una construcción social que jerarquiza a las personas en función de su origen, color de piel o cultura, generando privilegios para unos y discriminación para otros. Es el racismo el que crea las desigualdades, actuando como un motor que frena el desarrollo humano. Abordar la justicia social implica, obligatoriamente, combatir estas barreras para garantizar que los derechos fundamentales sean universales y no dependan de la procedencia de cada individuo.

Hoy en día, nos contradecemos al hablar de la sostenibilidad para las próximas generaciones mientras somos indiferentes a las desigualdades que separan a nuestros vecinos. Bajo esta premisa, el grupo de Educación y Control Ambiental organizó un taller colaborativo con TAU en el salón de actos del centro, dirigido a alumnos de distintos ciclos.

El encuentro contó con la participación de Lamine Thior, cómico y actor afroandaluz que ha consolidado su carrera en el stand-up y el storytelling.

Lamine utiliza un lenguaje sin tapujos para cuestionar los límites del humor y los prejuicios raciales. Su enfoque fue clave para generar un diálogo abierto sobre la discriminación, utilizando historias con finales contundentes que llevan siempre un mensaje social intrínseco.

El resultado del taller fue la creación de un espacio seguro donde el alumnado pudo compartir puntos de vista frente a esta problemática social y ambiental.



@ingurumena

El taller educativo para jóvenes acerca del racismo, permitió planificar una programación completa: desde la organización del espacio y horarios, hasta la difusión e invitación a otros ciclos. Durante la sesión, se realizaron dinámicas participativas y preguntas abiertas que fomentaron el pensamiento crítico entre los asistentes.



@ingurumena

“El racismo también es medioambiental”

Organizadores: Alumnado de 2º

Resultó impactante que el salón de actos con un aforo de 130 personas, se llenó, demuestra que estos temas realmente importan y que hay interés. Además se retransmitió por streaming, permitiendo que muchas más personas pudiesen participar y seguir la charla.

Texto: Vivian Yuliana Orrego.


Donostiako kutsadura akustikoa

Atsedena arriskuan: zaratak milaka herritarren egunerokoa baldintzatzen du.

Azken urteetan, hirian sortzen den zarata-maila asko igo da. Arazo honen iturri nagusiak honako hauek dira: bide-trafikoa eta barne hartzen dituen kaleen eta errepideetako trafikoa, trenbide-trafikoak eta industrialdeetan sortutakoak. Ingurumeneko guztizko zarata, udalerrriaren gaineko eragin akustikoak adierazten du, inguruneko zarata-foku guztiak batera hartuta. Zarata-foku bakoitzaren eragin akustikoa bereizteko, zarata mailaren jatorria ezagutu beharko da. Ondoren, zarata-eremuan neurri zuzentzaileak edo konponbideak aplikatu ahal izateko, maila globaltan ekarpen handiena eginez.


Kutsadura akustikoa beti etengabeko arazoa izan da gure gizartean. Horregatik, Donostiako Udalak, zarata murrizteko eta biztanle guztien osasuna hobetzeko erabakiak hartzen hasi zen. Horrekin, helburu hauek proposatu ziren: Isuri Gutxiko Ereduaren onarpena lortzen saiatzea, Donostialdeko metro linea berria eta erdiguneko zirkulazioa murriztea metroa funtzionatzen hasten denean Atotxa lurpeko tren-geltoki berria eraikitzea, hiri-autobus elektrikoaren erabilera handitzea, talde turistikoak mugatzea (25 pertsona gehienez)...

Gainera, Espainian eta Europar Batasuneko herrialde askotan 2022an Zarataren Mapa Estrategikoa (ZME) ingurumen-zarata ebaluatzeko eta kudeatzeko egin ziren. Europako araudia betetzeko eta kutsadura akustikoaren aurkako neurriak planifikatzeko laguntzeko batez ere.



Donostiako Zarata Mapa Estrategikoa. IV. fasea.
Argazkia: CAA (Centro de Acústica Aplicada).

Hau ikusita, Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko ikasleek, leku ezberdinetako zarata neurtu dugu. Alde batetik, Easo Politeknikoaren eta Zumaiako Urola Itsasadarraren inguruan. Neurketa horiekin, zarata mapak egin ditugu, Zumaiko eta Easoko egoera modu ikusgarrian irudikatzeko. Mapa hauek egin eta gero Zumaia herria dirudiena baino askoz zaratatsuagoa dela ikusi dugu. Easoren kasuan, bere inguruko kutsadura akustikoaren eragile garrantzitsuena errepideak dira.



Qgisekin egindako Easo Politeknikoaren inguruko zarata mapa
María Morán Sánchez

Zaratak, pertsonen osasun fisikoan zein mentalean du eragina. Osasun mentalean duen eragin handienetako bat etengabeko suminkortasuna da. Hasteko, arreta-arazoak sortzen ditu eta horrek ikaskuntza-atzerapenak ekartzen ditu. Eguneroko jarduerak, hala nola, irakurtzea, lan egitea edo ikastea, zailagoak bihurtzen dira. Eragin dezakeen beste ondorioetako bat, estresa eta antsietatearen sorrera da. Zaratak kortisola eta adrenalina izeneko hormonaren garapena eragiten du, gure garunak arrisku eta biziraupen momentuetan sortzen dituenak. Hori deta eta nerbio-sistema lasaitzea eragozten du eta "alerta" kronikoan mantentzen gaitu.



(*Felis silvestris*- Bakasakatu)
Argazkia: Alena Houšková.

Hormona horien garapenaren eskutik, gaixotasun kardiobaskularrak, bihotzekoak, muskulu-tentsioa, loa kaltetzea, konponezinak diren entzumen-arazoak sortzen dira. Ingurumenari dagokionez, zaratak faunaren lasaitasuna eta ongizatea kaltetzen ditu eta horren ondorioz, bere habitatetatik beste batera migratzeko beharra izaten dute; adibidez: basakatu (*Felis silvestris*). Florari begira, polinizazioa oztopatzen du. Arazo hauek, ekosistemen desoreka ekartzen dute.

Gure osasunetik basa-bizitzaraino, zaratak bere arrastoa uzten du planetako txoko bakoitzean, isiltasuna ere ezinbestekoa dela gogoraraziz.

Testua:
Hylenia Gómez Vázquez
María Morán Sánchez

La tecnología no nos eximirá de nuestras responsabilidades

En algún momento, el ser humano dejó de ser parte de la naturaleza para establecer su propio espacio. Los asentamientos se volvieron un medio artificial separado, con un sistema único y más independiente de la naturaleza, donde todo nuestro bienestar requiere del uso de la tecnología. Hasta ahora que, dependientes hasta para realizar esta revista, nos preguntamos: ¿podrá esta (la tecnología) salvarnos del cambio climático?



Foto: Joseph García




Foto: Joseph García

La carrera. Esa contra el que podría ser el fin de la humanidad, la comenzamos tarde. Para cuando debimos arrancar, los que podían decidir prefirieron mirar a otro lado. Ahora, la ambiciosa geoingeniería se propone controlar la Tierra; los más realistas, tiran por el ecodiseño; los emprendedores, imaginativos, proponen nuevas tecnologías para la mitigación y adaptación. El problema es, que cuando respondes tarde a problemas que ya han saturado a la tierra, poner curitas resulta insuficiente. La geoingeniería parece no poder controlar nada; el ecodiseño no sacará los 150 millones de toneladas de plásticos del océano y las estrategias de mitigación no detendrán las emisiones.

Ante este panorama, se nos plantea solo una verdadera opción: un cambio de sistema Y nos tocará a nosotros decidir entre eso o huir a Marte.

Texto: Joseph Alejandro García Rodríguez



Más allá de tu pantalla

Foto: Shutterstock, 2019. Artículo "hundidos en chatarra" por la UNIÓN

Del consumo digital al residuo global

Se estima que en 2019 se produjeron 53,6 millones de toneladas de estos desechos en todo el mundo, pero solo el 17,4 % se registró oficialmente como material recogido y reciclado.

Los desechos eléctricos y electrónicos son los residuos sólidos que más aumentan en el mundo.

El ciclo de vida de la electrónica es un concepto clave para entender el impacto ambiental que tienen los dispositivos electrónicos que utilizamos cada día. Desde su fabricación hasta su reciclaje, cada etapa influye en la explotación de recursos naturales, la generación de residuos y hasta la salud.

La publicidad nos bombardea diariamente con productos "imprescindibles", generando un deseo constante de sustituir televisores o móviles antes de lo necesario. Esta presión comercial acelera el flujo de residuos hacia el ecosistema.

El proceso comienza con la extracción, donde la obtención de tierras raras en ecosistemas frágiles provoca deforestación y graves riesgos sociales; aquí, el reciclaje es la única vía para reducir la demanda de materias vírgenes. Posteriormente, en la transformación y diseño, la industria consume ingentes cantidades de agua y químicos.

Lamentablemente, la miniaturización y la obsolescencia programada suelen priorizarse sobre la reparabilidad, dificultando la sostenibilidad.

Durante la distribución y uso, el transporte global eleva las emisiones de CO₂, mientras que la eficiencia energética del aparato se vuelve el factor determinante para el ahorro eléctrico.

Finalmente, al llegar al fin de su vida útil, un dispositivo mal gestionado libera tóxicos como plomo o mercurio. Sin embargo, mediante la intervención de gestores autorizados, los componentes se someten a un reciclaje vital donde se recuperan metales preciosos y plásticos, cerrando así el ciclo de la economía circular.

¿Qué puedes hacer tú?

Repara  Recicla  Cierra el ciclo 

Texto: Johana Abigail Mejia Quintana

Desizoztea

Zer da?

Hasteko, komeni da planetako poloen urtzea zer den zehazki jakitea. Lurreko atal honen desizoztea poloetako izotza urtzea da, hau da, izotzaren galera, ur bihurtzen dena eta ozeanoen eta itsasoen maila igotzen duena.


Kontuan hartu behar da urtzea prozesu naturala dela, izan ere, Lurrak glaziazio garaiak zein berotze garaiak izan ditu historian zehar. Hala ere, egungo arazo nagusia da poloetako izotzaren urtzea ohikoa baino askoz azkarrago gertatzen ari dela, gizakien jarduera handi eta kutsatzailearen ondorioz. Jarduera horiek berotze globala bizkortzen dute, eta, ondorioz, desizozte hau ez da erabat modu naturalean gertatzen.

Gaur egungo egoera?

Glaziarren egoera gaur egun

Lurreko glaziarrek duela mende erdi baino gehiago hasi ziren atzera egiten, aldaketa klimatikoaren aurrerapen geldiezinaren aurrean. Planetako ia eskualde guztiek jasaten dituzte fenomeno honen ondorioak, Asiako hegomendebaldeak izan ezik.

1961etik hona, munduan 9,6 bilioi tona izotz glaziar baino gehiago galdu dira. 2019an Zuricheko Unibertsitateak egindako satelite bidezko ikerketa baten arabera, azken hiru hamarkadetan glaziarren urtzea nabarmen azkartu da. Gainera, Natura Babesteko Mundu Funtzak (WWF) ohartarazi du 2100. urterako glaziarren heren bat baino gehiago desagertu daitekeela.



Perito Morenoko glaziar zati baten erorketa
(Mundo culturizando)


Glaziarren zikloa

Glaziarrek elurra pilatu, trinkotu eta berriz kristalizatzearen ondorioz sortzen diren izotz-masa handiak dira. Leku hotzetan eratzten dira, hala nola mendietan edo poloetan.

Glaziarrek hainbat irizpideren arabera sailkatzen dira:

- Morfologiaren arabera: izotz-eremuak, zirku-glaziarrek, haran-glaziarrek, etab.
- Klimaren arabera: glaziar polarrak, tropikalak edo epelak.
- Baldintza termikoen arabera: oinarri hotzekoak, beroak edo politermalak.

Glaziarren sorrera milaka urteko prozesua da, eta haien tamaina bizitzan zehar metatzen duten izotz-kopuruaren arabera da.



Glaziarren zikloa (Iberdrola)
Deshielo de los glaciares)

Urtzearen ondorioak

Zuricheko Unibertsitatearen ikerketaren arabera, glaziarren urtzea azken hamarkadetan nabarmen azkartu da, eta urtean 335.000 milioi tona izotz galtzen dira gaur egun. Honek itsas mailaren igoeraren %30 eragiten du.

Ondorio nagusiak hauek dira:

- Itsas mailaren igoera: 1961etik hona, itsas maila 2,7 zentimetro igo da. Glaziarretan dagoen izotz guztia urtuko balitz, itsas maila ia erdi metro igoko litzateke.
- Klimaren gaineko eragina: poloetako desizozteak ozeano-korronteak moteldu ditzake, eta horrek mundu mailako klima-aldaketak eta muturreko fenomeno meteorologikoak areagotzen ditu.
- Espezieen desagertzea: glaziarrek habitat naturalak dira espezie askorentzat, eta haien urtzeak espezie horien desagertzea ekar dezake.



Deshielo en la Antártida
(Ecología verde)
Datos sobre el deshielo de los polos)

Testua:
Ekaitz Loyarte Otaegi
Ugaitz Belaunzarán Otaegi

Guggenheim berri bat Urdaibaien

Beharrezkoa al da bigarren Guggenheim bat egitea Urdaibai bezelako Biosfera Erreserba batean? Zer inpaktu negatibo izan ditzake honek ingurumenean? Nola afektatuko lioke bertan bizi diren espezie eta hegazti migratzaileei?

Nondik dator ideia?

Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusi ohiak sortu zuen 2008 inguruan. 1997an inauguratutako Bilboko museoaren arrakastaren ondoren, tokiko ekonomia bultzatzeko zabalkuntza edo "bigarren Guggenheim" gisa sortu zen, baina 2021. urtera arte ideia ez zen argira atera.

Zertan datza proiektuak?

Guggenheim Bilbao Museoaren bigarren egoitza bat sortzean datza, Gernikako fabrika zahar batean eta Muruetako ontziola zaharretan kokatutako bi eraikinetan banatuta, pasabide baten bidez lotuta. 127 milioi euroko inbertsioa zen, lurraldea gune turistikoa eta kultural bihurtzeko.

Zeintzuk dira proiektuaren aldeko eta kontrako argudioak?

Aldeko argudioak sustapen ekonomikoa, deszentralizazio kulturala eta degradatutako industria-espazioen leheneratzea izango lirateke. Kontrako argudioetan aldiz, Greenpeace, SEO/Birdlife (Sociedad Española de Ornitología) eta WWF (World Wide Found for Nature) erakundeek "makroproiektua" salatu zuten habitat hauskorrek suntsitzea, gentrifikazioa eta turismo masiborako diru publikoa ingurune babestu batean erabiltzea.



Mikel Arrazola

Nola eragiten dio proiektuak bertako habitat eta espezieei?

Kontuan izan behar da Urdaibai Biosfera Erreserba deklaratu zuela UNESCOk 1984ko abenduaren 6an. Beraz, balio natural handiko ingurugunea da, bere kontserbazioa lehenestea beharrezkoa dena. Proiektuak Biosferaren Erreserba degradatzeko arriskuan jartzen du, padurak eta hezegune kritikoak eraldatuko liratekeelako, habitat hauek funtsezkoak dira hegazti-fauna migratzaileentzat, deskantsu eta elikatze guneak baitira. Gernikan eta Muruetan eraikitzeko arriskuan jartzen ditu karbono urdinezko hustubideak. Gainera, lurzorua iragazgaizteagatik uholde-arriskuak handitzen ditu, ahaztu gabe masifikazio turistikoa sortuko zela ingurune babestu batean.


Proiektuaren egoera gaur egun.

Guggenheim Bilbao Museoaren Patronatuak behin betiko baliogabetu zuen proiektua 2025eko abenduan, hainbat urtetako eztabaida eta oposizio sozialaren ondoren. Teknikoki eta administratiboki bideraezintzat jo zen epe labur/ertainean eta Biosfera Erreserban bi egoitza eraikitzeke plana artxibatu egin zen.

Herritarren eta talde ekologisten mobilizazioa erabakigarria izan zen proiektua bertan behera uzteko eta erresbaren kontserbazioa lehenesteko interes politiko edo ekonomikoen gaineratik.

Honek erakusten digu, beharrezko dela herritar guztion parte-hartze aktiboa eta elkarlanaren bitartez ingurumena babestu dezakegula.

Orain, helburua ingurua lehengoratzeko eta eremu degradatuak berreskuratzeko (Muruetako ontziolak, esaterako) kudeaketa planetan zentratu da.



Zumaiako Flyscha

Zumaiako Flyscha Gipuzkoako kostaldean kokatzen da, Zumaia, Deba eta Mutriku herrien artean. Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan dago, eta itsaslabar ikusgarriek osatzen duten paisaia bereziagatik da ezaguna. Itsasotik zein lurretik ikus daitekeen eremua da, batez ere Itzurun eta Algorri hondartzen inguruan, eta horrek irisgarritasun handia ematen die bai bisitariei eta bai ikerlariei ere.

Zumaiako Flyscha Euskal Kostaldeko altxor natural garrantzitsuenetako bat da, eta nazioartean ere erreferente geologiko nagusietako bat. Itsaslabar multzo honek 60 milioi urte baino gehiagoko Lurraren historia jasotzen du, geruzaz geruza antolatuta, liburu erraldoi baten modura. Horregatik, mundu osoko adituen interesa piztu du urteetan zehar.

Geologiari dagokionez, flyscha harri sedimentarioen geruza jarraituen multzoa da. Kareharrizko eta buztinezko geruzak txandakatzen dira, itsas hondoa metatu zirenak duela 60 eta 100 milioi urte artean. Geruza bakoitzak garai jakin bateko informazioa gordetzen du, eta horrek aukera ematen du lurrean izan diren aldaketa klimatikoak, itsas mailaren gorabeherak eta plaka tektonikoen mugimenduak aztertzeko. Itsasoaren higadurari esker, geruza horiek gaur egun agerian daude, eta azterketa zientifiko zehatzak egiteko aukera paregabea eskaintzen dute.

Zumaiako Flyschak garrantzi zientifiko handia du nazioartean. Bereziki esanguratsua da bertan Kretazeoaren eta Tertziarioaren arteko muga oso ondo ikusten dela, dinosauroen desagertzearekin lotutako garaia markatzen duena. Geruza ilun berezi batek une historiko hori adierazten du, eta asteroide baten talkak eragindako aldaketa globalak ikertzeko funtsezko lekua bihurtu da.

Ikerketa zientifikoaz gain, Zumaiako Flyscha oso garrantzitsua da turismoaren ikuspegitik ere. Itsaslabar bertikalek, olatuen indarrak eta mareen erritmoak paisaia ikusgarria sortzen dute, bai itsasotik ontziz eginda, bai oinez Algorri edo Itzurun bezalako hondartzetatik. Azken urteetan, bisitari ugari erakartzen dituen helmuga bihurtu da, eta natura eta zientzia uztartzen dituen turismo mota bat garatu da.

Gainera, Flyscha Euskal Kostaldeko Geoparkearen parte izateak balio natural, kultural eta hezitzailea babestu eta zabaltzeko aukera ematen du. Bisita gidatuen bidez, bisitariak paisaiaren edertasuna ez ezik, haren atzean dagoen historia geologikoa ere ulertu ahal dute, modu didaktiko eta ulergarrian.


Ondorioz, Zumaiako Flyscha ez da paisaia eder bat bakarrik, baizik eta balio zientifiko, turistiko eta hezitzaile handiko ondare naturala. Euskal kostaldeko altxor paregabea da, eta etorkizuneko belaunaldientzat zaintzea eta babestea ezinbestekoa da.

Gure Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko zikloan bi aldiz joan gara Zumaiara. Lehen aldian, Algorriko interpretazio zentroan egon ondoren Algorri hondartzara joan ginen eta bertako fauna behatu genuen, marea biziak aprobetxatuz. Bigarren aldian, zarata mapa bat egiteko datuak hartzera joan ginen.

Flysh

PHOTO COLLAGE

Algorri hondartza -Ekaitz Loyarte



Itsas trikuaren oskola-Ekaitz Loyarte



Itzurun -Ekaitz Loyarte



Itzurun -Irati Sanchez



Marrazo arrautza-Ekaitz Loyarte

Testua: Ekaitz Loyarte Otaegi



Natura 2000 Sarea Euskal Herrian


Euskal Herrian natur-balio ikaragarritzko eremuak aurki ditzakegu.

Biodibertsitatearen kontserbazio-eremuen Europako sare ekologikoa da. Habitat Zuzentzarauaren arabera ezarritako Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) ditu, Hegaztiei buruzko Zuzentzarauaren arabera izendatuak.




1992an sortu zen Europako espezieen eta habitat-moten epe luzeko biziraupena bermatzeko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko helburuekin. Natura kontserbatzeko tresna nagusia da Europar Batasunean.

Euskadin 47 KBE, 4 HBBE, 4 KBE-HBBE eta GKL 1 (Garrantzi Komunitarioko Lekua) daude, guztira 56 leku. Zenbateko horrek gure lurraldea duen garrantzi handia erakusten du. Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola izeneko formakuntza zikloan zehar, sare honetako leku batzuk bisitatzeko aukera izan dugu. Zumaiako eremu ezberdinak ezagutu ditugu; bereziki: Geoparkearen Flyscha (UNESCOren Munduko Geoparkeen Sarearen barruan) eta Urolako Itsasadarra (KBE). Araban, Salburuan (KBE eta HBBE) eta Gorbeian (KBE) egon ginen “Berrea” garaian (oreinen ugalketa-garaia iraila eta urria tarteko denboran). Gipuzkoan, berriz, Ulia mendia (KBE) behin baino gehiagoetan, Arditurri (Aiako Harria KBEren barruan) eta Plaiaundi (HBBE) bisitatu dugu.



Plaiaundiko hezegunearen paisaia
María Morán Sánchez



María Morán Sánchez

Klima aldaketari aurre egiteko eremu hauek babestea ezinbestekoa da, horiek osatzen dituzten elementuek (biodibertsitate espezie ezberdinak) ekosistemen oreka mantentzen dute. Natura 2000 Sarea mantendu ez ezik, Europako habitat eta espezie baliotsuenak babesteko modu aktiboan zabaltzen jarraitzen du eta Espainia hazkunde horren buru da Europako testuinguruan. Zerbait ezagutu gabe maitatu ezin dugunez, gune hauetara gerturatzea beharrezkoa da. Ingurumen hezkuntza, natura kontserbatzeko garrantzia barneratzean eta besteei helaraztean oinarritzen da. Guk egiten ez badugu, nork egingo du gure ordeztan?

Testua: María Morán Sánchez.



Uliako itsaslabarra.
María Morán Sánchez.

El tesoro de Urgull


Una especie de flora poco común, fascinante y característica de Euskadi.

La *Armeria euscadiensis* Donad. & Vivant es una especie de flora autóctona que florece en primavera. Crece en las repisas de los acantilados costeros y llega a medir desde 15 a 50 centímetros. Los tallos son erectos y sin hojas, y en su extremo nacen las flores, rojizas y agrupadas en cabezuela.

Es una especie amenazada debido a la alimentación de las cabras y a la abundancia de los neófitos *Stenotaphrum secundatum* y *Baccharis halimifolia* en los acantilados costeros. Debido a esto, está incluida en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (CVEA) en la categoría de “vulnerable”, y en el Listado de Especies Silvestres en Régimen de Protección Especial, lo que le otorga una protección oficial y facilita su conservación. Además, se han aplicado medidas como elaborar e instalar paneles informativos, un protocolo de regeneración/propagación, o materiales divulgativos sobre la importancia de estas especies y sus hábitats.

Al inicio del primer curso hicimos una excursión a Urgull e intentamos encontrar alguna *Armeria euscadiensis* pero no tuvimos éxito en nuestra búsqueda.

En conclusión, la *Armeria euscadiensis* es una especie de flora muy característica de Euskadi, y como tal es nuestro deber conservarla y protegerla, pues si esta especie se perdiera, también se perdería parte de nuestra identidad.



Juan Ramón Santos.

https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Armeria_euscadiensis.GIF

Euskal Herriko espezie mehatxatuak

Euskal Herriak biodibertsitate aberatsa du, baina espezie askok mehatxuak jasaten dituzte habitataren galera, kutsadura eta gizakiaren jardueren ondorioz. Arrain, anfibio, hegazti, ugaztun eta landare askok funtzio garrantzitsua betetzen dute ekosistemetan, eta horien artean batzuk kontserbazio-neurri bereziak behar dituzte, hala nola, ibai-kabuxak, hegoaldeko zuhaitz-igelek, ugatzak, igaraba arruntak eta nenufar zuriak.



EN

Fraile Ibai-kabuxa, *Blennius fluviatilis*

Arabako Ebro arroko ibaietan bizi da, sakonera harritsueta, eta ornogabeez eta arrainkumeez elikatzen da. Udaberrian erruten du eta arrak zaintzen ditu arrautzak. Mehatxu nagusiak ugalketa-eremuen alterazioa, harearen erauzketa eta karramarro gorri amerikarra dira. Honen aurrean uraren kalitatea eta habitataren babesak funtsezkoak dira.

Blennius fluviatilis

T.Cooper / Reef Life Survey (CCBY).

Ranita Meridional Hegoaldeko Zuhaitz-igela, *Hyla meridionalis*

Gipuzkoako Mendizorrotz mendian aurkitzen da, landaretza ugariko hezeguneetan. Intsektuez elikatzen da eta putzuetan erruten du. Populazio kritikoa du habitataren galera eta suteengatik. Kontserbazio-neurriak putzuak sortzea eta habitat egokiak babestea dira.



Hyla meridionalis

Gailhampshire / Flickr (CCBY2.0)



Gypaetus barbatus

Mike Prince (Flickr) / CC BY 2.0

Quebrantahuesos Ugatza, *Gypaetus barbatus*

Hegazti harraparia da, batez ere hezurak jaten ditu eta Aralar mendilerroan bizi da. Populazioak gainbehera historikoa izan du ehiza, pozoia eta habitataren aldaketagatik. Gaur egun, isolatuta dauden populazio txikietan mantentzen da. Habien babesak, giza eragozpenen murrizketa eta elikadura osagarria funtsezkoak dira hauen kontserbazioa bermatzeko.

EN

Desagertzeko arriskuan

Nutria Paleártica Igaraba Arrunta, *Lutra lutra*


